

1. Ordenatu paragrafoak – Testua berreraiki logika erabiliz.

1. Ipuina: Basoko gaua

A. Goizean, eguzkiaren lehen izpiak zuhaitzen artean sartzen hasi zirenean, dena baretu zen berriro. Haizeak hostoak lehortu zituen eta txoriak abesten hasi ziren, gauaren zarata urrun gelditu zen. Ane eta Julen dendetatik atera ziren, arnasa sakon hartu eta irribarre egin zuten: esperientzia hura betiko gogoratuko zutela jakin zuten.

B. Uztailaren erdian, Ane eta Julen asteburua mendian pasatzea erabaki zuten. Azken hilabeteetan oso lanpetuta ibili ziren, eta atsedeen pixka bat behar zutela pentsatu zuten. Goiz jaiki ziren eta autoz baso handi baten ertzerabiatu ziren, motxila eta kanpin-denda hartuta. Eguraldi ona iragarria zegoen eta biak oso pozik zeuden planarekin.

C. Eguzkia mendien atzean ezkutatu zenean, haize freskoa sartu zen basoan eta usain berezi bat zabaldu zen inguruan: egur hezeena eta pinuen artean gordetzen den lur usaina. Su txiki bat piztu zuten afaltzeko, eta ipuinak kontatzen hasi ziren, irribarre artean. Iluntasunak inguratu zituen, eta pixkanaka, izarrak agertzen hasi ziren zeruan.

D. Ordu batzuk igaro zirenean, haizea indartsuago bihurtu zen eta kanpin-dendaren oihala dardarka hasi zen. Ane esnatu egin zen eta tximisten argia ikusi zuen urrunean. Julenek eskuetatik heldu zion eta lasaitasuna transmititu nahi izan zion. Euriak gogor jo zuen dendan, eta biak elkarri itsatsita geratu ziren bero bila.

Idatzi hemen zure ordena:

--	--	--	--